

## Enpresaburu batzuen hitzak

"Euskora kidetu naiz **desmartxa kolektiboa delako**, Euskal Herriko bizi ekonomikoaren aktoreen arteko **elkartasunean oinarritua dena**, ekoizletik kontsumitzaileera, gure hazkundera emendatzeko eta lan sorkuntza edota atxikitzeari bidea emateko".

**Marie-Hélène Othondo, Indarra Informatique Maulen.**

"Azken finean, euskoa biziki sinplea da: **kutxa doblerik ez, kontabilitate doblerik ez**, ene negozio zifra guztia eurotan deklaratzeko. Xehea itzultzeko eusko kutxa bat baizik ez dut behar. Eta gainera ordainketa modu goxoagoa da."

**Jérôme Etchebarne, Etchebarne Jatetxea, Lekornen.**

"Euskoarekin, **bezero berri batzuk** hurbiltzen ikusi ditut eta orain gehienak erregulariki berritz heldu dira. Ekartzen dizkidan irabaziak, ene euskoen parte bat euroen truk berraldatzerakoan ordaintzen ditudan %5eko komisio gastuak konpentsatzen ditu. Gero, bezero bat gehiago ukaitea eta komisio pixka bat ordaintzea hobe da, bezero hori ez batere ukaitea baino" !

**Patricia Paris, Paris Elikadura-Ostatua Donibane Garazin.**

"Ene bezeroek emandako euskoen berrerabiltzeko arazorik ez dut, **Euskal Monetak ene hornitzaile batzuk sarean sarrarazi dituelako**. Eusko pixka batekin ere ordaintzen dut ene burua eta momentuko ez dut euskorik berraldatu euroetara. Segi dezagun..."

**Auxtin Darraidou, Euzkadi Hotel-Jatetxea Ezpeletan.**

"**Euskara ez dakit baina ez da arazo bat**, Euskal Monetak laguntzen nauelako ene etiketak euskarara itzultzen. Horrez gain, hitz batzuen ikasteko 20 ordu klase hartzea erabaki dut, formakuntza profesionalak gastuak beregain hartzen ditu. "

**Laurent Lagahe, Antenne Plus Bidarten.**

" Euskoarekin sarearen **kide diren enpresen garapen ekonomikoan** parte hartzen dugu, edozein aktibitate arlotan."

**Franck Patissier, Hodei : Solution Alternative Numérique, Bidarten.**

### Sostengoak:



### Partaidetzak:




## EUSKOA PROFESIONALENTZAT

- ✓ **Ene bezeria emendatzen eta leialtzen dut eusko sareko profesionalen aurkibidean eta webgunean agertuz.**
- ✓ **Euskal Herriarentzat desmartxa dinamiko eta eraikitzaile batean engaiatzen naiz.**
- ✓ **Sare solidario, etiko eta erantzule baten garapenean parte hartzen dut.**

### Gaur egun Frantzian..

Tokiko **44** Moneta Osagarri **zirkulazioan** dira eta beste **20** **proiektu bidean** dira (azpi honetako mapa)



Herritar Tokiko Moneta Osagarri batzuen adibideak :

- Abeille Villeneuve sur Lot aldean ;
  - Mesure, Roman sur Isère aldean ;
  - Miel, Libournais aldean ;
- beste batzuk kolektibitateek bultzaturik :
- SOL Violette, Tolosan;
  - Retz'L, Naoned/Nantes hirian ;
  - Galleco, Roazhon/Rennes hirian

Ille-et-Villaine Departamenduko Kontseilu Nagusiak bultzaturik

### Eta European :

#### Alemaniatik etorri adibidea

Alemanian, Chiemgau-an, **2003-an abiatutako tokiko Monetak (Chiemgauer)** 2500 kontsumitzaile, 600 saltzaile eta enpresa, eta 230 elkarte biltzen ditu.

**550 000 Chiemgauer ibilbidean ezarriak izan dira**, 6 milioi euro baino gehiagoko tokiko %100-eko negozio zifra bat sortzen dutenak.

Euskal Monetako taldeak 2011-ko urtarrilean bisitatu zuen Baviarako hegaldako lurralde horrek **280 000 biztanle kondatzen ditu**, gune baserriarrak baita 10 000 eta 50 000 biztanlearteko hiriak... pixka bat **Euskal Herria bezala**.

Sarean diren enpresek bezeroengandik jasotako **Chiemgauer-en %73a** berrerabiltzen dituzte. Sistemazahartasun gehien dutenek tasa handiagoa dute ere, ondorioz Chiemgauer biziki gutti eurotara berraldatzen dituzte.



**Euskal Moneta**, Cordeliers karrika 20, 64100 Baiona  
info@euskalmoneta.org - 05.33.47.54.11  
www.euskalmoneta.org  
facebook.com/euskoa - twitter.com/EuskalMoneta

# Eusko-saltzailearen gidaliburua

## 1. Ordainketak euskotan eurotan bezala onartzen ditut ?

Ene bezeroek beren erosketa osoa edo parte bat euskotan ordaintzen ahal didate.

Gogoan izan:

- Eusko 1 = Euro 1.
- 1, 2, 5, 10 et 20 euskoko billeteak ziurtatuak dira faltsutzearen aurka
- Erreserba fondoa (aldatutako euroak euskoen truke) NEF-eko aurrezki libreta batean ezarriak dira eta Herrikoa-rekin kudeatua da
- Frantziako Bankuak ordainketa modu horren egokitasuna baieztatu du

## 2. Xeha euskotan ala eurotan itzultzen dut ?

Eusko 1 = Euro 1, beraz jabetxe txartel bat bezala, euskotan ordaindua naizelarik euskotan itzultzen dut xeha, eta zentimoentzat xeha eskatzen dut: artikulua 5,50 € balio badu, bezeroak 5 eusko eta 50 euro zentimo emaiten dizkit.

## 3. Ene kutxa zailtasunik gabe egiten dut ?

Euskoa ordainketa modu sinplea da, jabetxe txartel, opor txeke edo opari txekeak bezala...

Ene kutxa grabatzailean "eusko" ordainketa modu berri bat programatzen dut.

Kontuak egitean 5 azpi-kontua (kutxa/altxortegia) erabiltzen dut eta egunero euskoen saldoa kalkulatzeko, eusko billeteekin egiaztatuz.

Egindako salmentak beti eurotan grabatuak dira eta ene kontabilitatean eurotan idazten ditut deklarazio fiskal eta sozialak (TVA/BEZ, BIC, IS, IR...) egiteko asmoarekin. Euroak bakarrik deklaratzeko ditut!

## 4. Euskoak berrerabiltzen ditut

Euskoak zirkulatu behar du ahal bezain bat, aberastasuna sortzeko helburuarekin Euskal Herrian. Orduan, bezeroek emandako euskoak berrerabiltzen saiatuko naiz :

- **Hornitzaileak ordainduz**, 1 000 euskoko mugarekin fakturara. Euskoa ez badute oraindik onartzen, sarean sartzea proposatzen ahal diet, Euskal Monetako ordezkariarekin harremanetan ezarrit.

- **Lansariak edo parte bat bederen euskotan ordainduz**. Eskudiru ordainketa bat bezala da! Service Public gobernuaren webgunea biziki argi da horri buruz: "eskudiruz ordaintzen ahal da bakarrik lansaria 1 500 € azpitik baldin bada eta langileak eskatzen badu." (<http://vosdroits.service-public.fr>). Beraz, langilearen adostasunarekin, jasotako euro kopuruarentzat ordainagiri bat izenpearazi behar zaio, eta zehaztu adibidez "ordainketa eskudiruz, 100 euro" bere lansaria fitxan. Lantegiaren buru edo «Travailleur non salarié» gisa, euskoak jasotzen ahal ditut mugarik gabe.

- **Ene beherapenak euskotan eginez** : 100 eurotan den produktu bat %20ez apaldu nahi badut, 80 euro eskuratu ordez, 100 euro galdegiten ditut eta bezeroari 20 eusko emaiten, Euskal Monetako kide karta baldin badu. Ber prezioa pagatu du, baina baditu 20 eusko ene dendan edo sareko beste norbaiten enpresan erabiliko dituenak.

- Ez ahantz: Euskotan ordaintzen duteneri, **xeha euskotan itzuli ezazu !**

## 5. Beharrez, ene euskoak eurotara aldatzen ahal ditut ?

Euskoak ezin badituz berrerabili, aldagune batera noa. Ene euskoak pausatzen ditut eta 8 egun barne banku transferentzia baten bidez utzi dudana diruaren %95a eurotan jasoko dut. Ordaindu dudana %5eko komisio gastuarentzat faktura bat eskuratuko dut, ene kontabilitateari gehitzen ahal diodana edozein faktura bezala. Gastu horiek zergetatik kengarriak dira (627 kondua), Euskal Monetari eman diodan urte-saria bezala (628 kondua).

## 6. Eta urruneko ordainketentzat ?

100 km-tara den hornitzaile bati 500 eusko ordaindu behar baldin dizkiot, banku transferentzia sistema bat edo urruneko ordainketa modu bat behar da. Azken hori Euskal Monetako taldea lantzen ari da, osoki segurtatua izanen da eta jakinean atxikia izanen utzia

## 7. Eusko gehiago behar badituz ?

Ene langileak edota sareko hornitzaileak ordaintzeko, euskoak eskas dituz ? Ene auzoko edo herriko aldagunera noa, gasturik gabe euroak euskotara aldatzeko. Berriz banoa diru kopuru berarekin, eusko bat euro batentzat eta hautatu dudana elkarteari Euskal Monetak ene aldaketaren %3a emanen dio. 100 euro aldatzean, 100 eusko eskuratzen dituz eta hautatutako elkarreak 3 eusko.

Irakurria eta baieztatua :

**Matthieu Bourd  (-ek) : Kontulari aditua, Angelun**  
**Fran ois Larraburu (-ek) : Kontulari aditua, Hendaian**

